

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

896

EBAZPENA, 2026ko otsailaren 17koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sail-eko Gipuzkoako lurralde-ordezkariera, instalazio elektriko hauen aurretiazko eta eraikitzekeko administrazio-baimenak emateko eta horien onura publikoa deklaratzeko dena: «132 kV-ko (z/bik) Abadiano TA-Azpeitia TA 2 eta Ormaiztegi TA-Abadiano TA 1 lineak Mondragon TAra deribatzea», Arrasateko udalerrian. Espedientea: 20-ATY-2025-112.

AURREKARIAK

1.– 2025eko abuztuaren 1ean, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak (helbidea: San Adrian 48, Bilbao, Bizkaia) aurretiazko eta eraikitzekeko administrazio-baimenak, eta herri-onurako adierazpena eskatu zituen, ondorengo instalazioentzat: «132 kV-ko (z/bik) Abadiano TA-Azpeitia TA 2 eta Ormaiztegi TA-Abadiano TA 1 lineak Mondragon TAra deribatzeke», Arrasateko udalerrian; eta horrekin batera aurkeztu zituen eskabide-orria, proiektu teknikoa eta eskatzaileak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakatua.

2.– Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan (2020-04-24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000-12-27ko BOE) aurreikusitakoa betez, testu horren azken xedapenetatik lehenengoan, 1957ko apirilaren 26ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektriokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikulutik 56. artikulura (2013-12-27ko BOE) ezarritakoarekin bat etorriz, jendaurrean jarri zen instalazio elektriko honen proiektua, bai eta eskatzaileak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakatua.

3.– Horretarako, jendaurrean jartzeko izapidearen barruan, iragarkia argitaratu zen Arrasateko udaletxeko iragarki-oholean, arauzko epean; EHAA, 2025-11-19an; GAOn, 2025-11-17an; «El Diario Vasco» eta «Berria» egunkarietan, 2025-11-18an; eta web orri honetan: <https://www.euskadi.eus/informacion-publica-de-proyectos-sobre-minas-y-energia/web01-a2energi/eu/>

4.– Jendaurrean jartzeko izapidearekin batera, 2025eko azaroaren 18an, dagokion separata bidali zitzaion Arrasateko Udalari, Uraren Euskal Agentziari (URA), Telefónica SAri eta Lyntya Networks, SAri proiektuari adostasuna emateko edo aurka egiteko eta, hala bazegokion, baldintza tekniko egokiak ezartzeko eskatuz. Eskaera hori 2026ko urtarrilaren 14an berretsi zen.

5.– Proiektuarekiko adostasuna edo aurkakotasuna eskatzeko, eta, hala bazegokion, baldintza teknikoak ezartzeko, Telefónica SAk aldeko txostena aurkeztu zuen, eta baldintza batzuk ezarri zituen. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresa eskatzaileak horrekin ados zegoela adierazi zuen. Kontsultatutako gainerako administrazio publikoek, organismoek eta enpresek ez zioten erantzun proiektuaren alde edo aurka zeuden adierazteko eskaerari.

6.– Jendaurreko erakustaldiaren barruan, ez zen proiektuaren aurkako alegazio-idazkirik aurkeztu.

3.– Instalazioen titularrak lanen amaieraren berri emango dio Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari, behin betiko onesteko eta ustiapen- eta zerbitzuan jartzeko baimena emateko.

4.– Obrak egiteko beharrezkoak diren udal edo probintzien eskumenpeko gainerako baimen edo lizentzia eta bestelakoak ere eskuratu beharra salbu utzita ematen da Ebazpen hau, eta horiek eskuratzeko betebeharretik ez du salbuesten eskatzailea. Halaber, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe eta jabetza-eskubidea salbu utzita ematen da.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Deskarbonizazioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Donostia, 2026ko otsailaren 17a.

Gipuzkoako lurralde ordezkaria,
ANTTON ARRIETA INSAUSTI.